

Getxo >MEETING<



Getxo MEETING 05/10: Nola aprobetxatu kirol- zein kultura-ekitaldiak gure negozioa ikustarazteko?

Bi ostegunetik behin egin ohi dugun bezala, Getxo MEETINGen bildu gara interesatzen zaizkigun gaiak jorrazteko. Oraingo honetan gure burmuina entrenatu dugu ideiak pentsatzeko, Getxori oso giro berezia ematen dioten jarduera, kultura-jai, musika-jaialdi, kirol-txapelketa ugariei eta abarrei probetxua ateratzeko xedearekin. Zenbait egunez —ez soilik ekitaldiak iraun bitartean, aurreko egunetan ere bai— ekitaldi horiek sortzen duten mugimenduan murgiltzen da udalerria.

Azken Getxo MEETING saioan pentsatzen egon ginen. Burmuinarentzako benetako entrenamendua izan zen elkarrekin aritzea ideiak pentsatzen, besteak beste ekitaldi jakin baterako ideiak eta saioan parte hartu zuten beste pertsona batzuentzako proposamenak izate aldera. Ezin izan bazinen etorri, hona hemen zenbait gako:

1. Desberdin pentsatzeko, hainbat sormen-estimulu izan behar dira, itxuraz existitzen ez diren gaiak erlazionatzea ahalbidetzen baitizkigute. Edozer izan daiteke ideia berri baten oinarri. Begirada entrenatu eta ikuspuntu berrietara ireki beharra dago.
2. Ikusgai bihurtzeari buruz eta ekitaldi bat aprobetxatzeaz aritzen garenean, ez dugu esan nahi ekitaldi berri handi bat sortu beharra dagoenik, ezta babesleak izateko edo babestuak izateko premia dugunik ere. Kasu zehatz honetan, udalerrian sortzen den giroa aprobetxatuz olatuarekin bat egiten duten sustapen-ekintzei buruz gabilta.
3. Adibide bat, mesedez? Lasterketa batean parte hartzen duen jendearentzako sustapen berezia, jaialdi batera doan jende ugariaren

premia asetzen duen berariazko zerbitzua, kultura-ekitaldi bati egiten zaion erreferentzia, hala nola auzoko jaien erakusgarri den plater berezia sortuz, etab.

4. Eta laguntzea? Mota horretako egoerak oso egokiak dira aldi batez elkarlanean aritzeko guneko beste enpresa batzuekin. Denbora mugatuko ekintza denez, ez da gehiago egiteko konpromisoa hartu behar. Hala eta guztiz ere, beste aukera batzuk sor ditzake ere bai.
5. Zein da ideia onena? Gauzatzen den ideia. Hau da, inoiz ez baduzu horrelakorik egin, zure negozioarako interesgarriak iruditzen zaizkizun bi ekitaldi aukera itzazu urtean. Hurbiltasunagatik, gaiagatik edo dena delakoagatik aukeratu, baldin eta prestaketa-lanak egiteko nahikoa denbora baduzu, ez du zertan zerbait handia izan. Ideia sinple bat gauzatuz hasi. Horrela, gehiago egiteko energia eskuratuko duzu.

Hurrengo bilera maiatzaren 24an izango da, 14:30ean, Getxolanen, zure zain egongo gara. Bilera berria, enpresa parte-hartzaile berriak eta kontaktu berriak zuretzat.